Eklipsea

JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Joan den abuztuaren 12an, beste hamarnaka mila ardi bezala –nire kasuan propagandak eta presio sozialak hartaratua–, ni ere harrapatuta nengoen auto ilara batean, eklipsea ikustera joateko. Autoek kolapsatzen zituzten saihesbideak eta autobideak. A zer nolako ipuina idatziko zukeen Julio Cortazarrek halako egoera batekin, pentsatu nuen. Gero burura etorri zitzaidan beste idazle latinoamerikar bat, Augusto Monterroso, eta hark idatzitako *Eklipsea* ipuina, *Dinosauroa* bezain ezaguna ez bada ere, ausaz pixka bat luzeagoa delako. *Eklipsea*-n, Mendebaldeak maia kulturarekin konparatuta omen zuen gailentasun teknologiko-zientifikoa zalantzan jartzen da, umore beltzeko ironiaz, maia herriari *egia errebelatua* jakinaraztera joan den misiolari baten bidez.

Ezpata, gurutzea eta hizkuntza eskutik helduta joan izan omen dira beti, Espainia inperio bihurtzeraino. Gauza jakina da. Monterrosok oso labur idaz-

'Eklipsea'-n, Mendebaldeak maia kulturarekin konparatuta omen zuen gailentasun teknologiko-zientifikoa zalantzan jartzen da

ten zuen, eta horregatik, haren hitz bakoitza urrea da. Ezer ez da kasualitatea Monterrosoren ipuin batean. *Eklipsea* ipuinaren protagonistak, misiolariak alegia, Bartolome de Arrazola du izena. Ipuineko Bartolome de Arrazolari inork galdetu izan balio, aizu, Bartolome, zer dela-eta etorri zara hiltzera etxetik hain urrun?, zera erantzungo ziokeen, ausaz: ni fraidea naiz eta fraide bati dagozkion lanak egiten ditut. Eta punta-puntako proiektu ebanjelizatzaile batean bada, hainbat hobe. Ukatu nahi didazu puntako proiektu ebanjelizatzaile batean aritzeko eskubidea?

Ezpatari dagokionez, gaur egun, beste idazle famatu batek esan ohi zuen bezala, futbol taldeek hartu ohi dute armadaren ordezkapen sinbolikoa (nahiz, martxa honetan, ez jakin noiz arte eusten ahalko zaion baieztapen horri). Mundialak beste hainbat gauzaren eklipsea ekarri du.

Bide alternatiboetatik ibiliz, beste garai batean kontrolak saihesten genituen bezala, saihestu genituen azkenik butxonak eta txolopoteak oro. Bueltan, autoko denak ongi geunden bistaz. Alegia, eklipseak ez zuen inor itsutu. Nahiz eta, zaharraren zaharraz oso ezaguna den bezala, ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik ez izan. ●

ATXEGA JAUREGIA
JATETXEA
EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...
USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com